# Taller de diseño gráfico. Diseño de marcas gráficas de identidad



## Eka. 19 - Eka. 21 2019

### Kod. I03-19

**Mod.:**
Aurrez aurrekoa

**Edizioa**
2019

**Jarduera mota**
Tailerra

**Data**
Eka. 19 - Eka. 21 2019

**Kokalekua**
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**
Gaztelera

**Balio akademikoa**
30 ordu

### Antolakuntza Batzordea

# Azalpena

Gure eguneroko zereginetan, uneren batean topo egiten dugu topo marka grafiko batekin, ezinbestean. Hala, eguna hasteko «Kellogg´s» zerealak gosalduko ditugu; gero, «Lacoste» bat jantzi eta «Nike» oinetakoak jarriko ditugu; «Michelin» pneumatikoak dituen «BMW» batean bidaiatuko dugu; «Shell» gasolina hartuko dugu; «Apple» ordenagailu bat piztu, eta «Googlen» bilaketak egingo ditugu; «Montblanc» batez sinatuko dugu; «Starbucks» batera sartuko gara, kafea hartzera, etab. Eta ekintza horietan guztietan identitate marka grafiko batzuei begiratu behar diegu, zeinak bisualki gure irudíteria sinboliko kolektiboan inskribatuta baitaude. Marka grafiko horien bidez, begiratzen, ordenatzen eta epaitzen dugu; konfiantza dugu haiengan, eta haiekin gu geu identifikatzera irits gaitezke gure inguruan. Nahi ala ez, markek markatuta gaude. Auto bat erosiko genuke bere jatorriaren berri ematen duen marka grafiko bat izango ez balu? Beteko genuke gure autoaren depositua bisualki identifikatu ezin daitekeen gasolindegi batean? Horixe da marken boterea.

Irudiaren gizarte batean, non bisualki anonimoa denak baliorik ez duen –ezta ustezko egiatasunik ere–, guztiak dirudi markaketa xede eta helburu. Hori, bistakoa da, komunikazio bisualerako aukera pribilegiatu bat da, ezinbestekoa gaur egun askotariko merkataritza eta erakunde jarduerak bereizteko eta egiaztatzeko. Marka grafikoek zeinuen bidez ikasitako adiera elkartu bat irudikatzen dute. Eta horretan datza, funtsean, diseinu grafikoa; hots, diskurtso estrategiko bat zeinuen bidez komunikatzean, zeinu batzuk, giza dimentsio batetik sinergia egoki bat sortzen dutenak, pregnanteak direnak eta zentzu sare bat eraikitzen dutenak.

Tailerra, besteak beste, diseinu grafikoaren, publizitatearen, arte ederren, merkataritza eta erakunde komunikazio korporatiboaren eta marketinaren arloetan diharduten ikasleei eta profesionalei eskainiko zaie, eta, oro har, irudiari eta komunikazio bisualari buruzko prozesuak hobetzeko interesa duen edonori.

## Helburuak

Esperientzia gidariak erakustea, marka grafikoen pertzepzio eta diskurtso alderdiei konponbide egokiak emateko, gehienbat praktikoa eta parte hartzailea izango den lan prozesu metodiko baten bidez.

Komunikazio grafikorako esanahi estrategiak aztertzea, sentitzen eta pentsatzen laguntzen diguten esperientzia aberasgarriak sortuz.

Komunikazio bisualaren funtzionamenduari buruzko oinarri praktiko bat ematea, haren ikaskuntza dinamizatzeko eta gizartean eta lan arloan duen estimazioa areagotzeko.

# Programa

## 2019-06-19

| | |
|---|---|
| 09:00 - 09:15 | Entrega de documentación |
| 09:15 - 11:00 | “Diseño con-sentido“<br>**Eduardo Herrera Fernández** UPV/EHU - Profesor Titular de Universidad<br>**Leire Fernández Iñurritegui** UPV/EHU - Profesora Titular de Universidad |
| 11:00 - 11:30 | Atsedena |
| 11:30 - 13:30 | “Proyecto gráfico: definición de objetivos comunicativos“<br>**Leire Fernández Iñurritegui** UPV/EHU - Profesora Titular de Universidad<br>**Eduardo Herrera Fernández** UPV/EHU - Profesor Titular de Universidad |

## 2019-06-20

| | |
|---|---|
| 09:15 - 10:30 | “Fundamentos icónicos, tipográficos, cromáticos y retóricos de las marcas gráficas“<br>**Leire Fernández Iñurritegui** UPV/EHU - Profesora Titular de Universidad |
| 10:30 - 11:00 | Atsedena |
| 11:00 - 13:30 | “Proyecto gráfico: proceso de creación (I)“<br>**Leire Fernández Iñurritegui** UPV/EHU - Profesora Titular de Universidad<br>**Eduardo Herrera Fernández** UPV/EHU - Profesor Titular de Universidad |

## 2019-06-21

| | |
|---|---|
| 09:15 - 10:30 | “Aspectos de evaluación de la calidad de una marca gráfica“<br>**Eduardo Herrera Fernández** UPV/EHU - Profesor Titular de Universidad |
| 10:30 - 11:00 | Atsedena |
| 11:00 - 13:30 | “Proyecto gráfico: proceso de creación (II)“<br>**Leire Fernández Iñurritegui** UPV/EHU - Profesora Titular de Universidad<br>**Eduardo Herrera Fernández** UPV/EHU - Profesor Titular de Universidad |

# Zuzendaritza



### Leire Fernández Iñurritegui

UPV/EHU, Dibujo

---

Arte Ederretan Doktorea eta Diseinu Grafikoko irakasle titularra da UPV/EHUan. Eduardo Herrerarekin batera UPV/EHUko Diseinu Grafikoko eta Tipografiako «Letraz» Ikerketa Taldea kozuzentzen du. Beren argitalpenen artean honako liburuak nabarmendu daitezke: «Diseño de cubiertas de libros» (Síntesis Argitaletxea), «Un proceso creativo en el diseño gráfico de carteles» (UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua) edo «Historias que marcan» (GG Argitaletxea). Batera «Arantzazu Letraz Gunea» (Diseinu Grafikoaren unibertsitateko proiekziorako espazioa) zuzentzen dute. «Diseñar para comunicar» ikastaroa ematen dute Domestikan, sortzaileentzako online plataforma handienean. Nazio eta nazioarteko sari ugari jaso dituzte beraien lan grafikoengatik. Aipagarrienak: “Clap Platinum” saria tipografia diseinu onenari, «Anuaria de Oro» saria argitaratze-grafikoan eginiko diseinu onenari, «Juan de Yciar» saria argitaratze-kalitate onenari edo “Letra de Oro de Comunicación Visual y Gráfica del Entorno” saria.



### Eduardo Herrera Fernández

UPV/EHU, Dibujo

---

Doctor en Bellas Artes y profesor de Diseño Gráfico en la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Junto a la profesora Leire Fernández dirige el Grupo de Investigación en Diseño Gráfico y Tipografía «Letraz» de la UPV/EHU. Entre sus publicaciones pueden destacarse «Diseño de cubiertas de libros» (Editorial Síntesis), «Un proceso creativo en el diseño gráfico de carteles» (Servicio Editorial de la UPV/EHU) o «Historias que marcan» (Editorial GG). Juntos dirigen el espacio de proyección universitaria del Diseño Gráfico «Arantzazu Letraz Gunea». Imparten el curso «Diseñar para comunicar» dentro de Domestika, la mayor plataforma online para creativos. En su labor profesional han sido reconocidos con diversos premios, entre los que pueden destacarse el «Clap Platinum» al mejor diseño de fuente tipográfica, el «Anuaria de Oro» al mejor diseño de una publicación editorial, el «Premio Juan de Yciar» a la calidad editorial o el «Letra de Oro» de Comunicación Visual y Gráfica de Entorno.

# Matrikula prezioak

| MATRIKULA | 2019-05-31 ARTE | 2019-06-19 ARTE |
|---|---|---|
| OROKORRA | 81,00 EUR | 95,00 EUR |
| MATRIKULA MURRIZTUA | 48,00 EUR | - |
| MATRIKULA EXENTZIOA | 20,00 EUR | 20,00 EUR |
| MATRIKULA BEREZIA | 48,00 EUR | - |

# Kokalekua

## Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa